TUMOREEN ERAUZKETA ERRADIOFREKUENTZIAREN BIDEZ

Gurutz Garmendia Larrañaga
Maite Esnaola Albizu

Erradiologia Zerbitzua. Donostia Ospitalea

Azken bi hamarkadetan tumore batzuen tratamendu perkutaneoa garatu da, teknika ezberdinak erabiliz. Teknika hauen artean bi nagusitu dira: alkoholaren injekzio intratumorala eta erradiofrekuentzia hain zuzen.

1993. urtean, Rossi eta lankideek erabili zuten aurrenekoz erradiofrekuentzia gibeleko tumoreak tratatzeko, elektrokauterio deritzon zunda baten bitartez. Erradiofrekuentziak uhin elektromagnetikoak darabiltza (450-500 kHz-eko irrati-uhinak), eta horiek zeluletako ioiak astintzen dituzte. Astinketa honek tenperaturaren igoera dakar, nekrosi tisularra sortuz.

Teknika hau hasieran peroperatorioki erabilia izan zen, baina azken urteotan erabilera perkutaneoa ere zabaldu da.

Emaitzarik onenak tumore bakar txikiekin lortu dira (3 cm-ko diametroa dutenak edo txikiagoak), tumore handiagoetan emaitza txarragoak lortu direlarik. Analgesia edo anestesia guztiz beharrezkoak dira.

Orokorrean, teknika hau erabili duten gehienek diote erradiofrekuentziak alkoholaren injekzio intratumoralak baino konplikazio gehiago sortzen dituela (honako hauek nagusiki: mina, sukarra, abszesuak, hemoperitoneoa, hemobilia...).

Adituek diotenez, etorkizuna terapia konbinatuetan datza, hau da, tratamendu perkutaneoa eta beste tratamendu batzuk konbinatzea (terapia genetikoa, kimioterapia, erradioterapia, immunoterapia, terapia hormonalak, eta enbolizazio transarteriala, batez ere).